

Rosa María Martín Salvaris

EHUKO IRAKASLEA

Nire arbasoena ez den hizkuntza hau

Nire arbasoena ez den hizkuntza hau maite dut. Nire jaioterriaren hizkuntza delako. Nireak eta bost kostata neureganatu behar izan dudalako, amaren kolkotik urrun. Hizkuntzak eta hitzak maite ditudalako.

“Aizu, andrea!”. Txamarra bat, euritako bi, karpeta, kirol-motxila eta afarirako eta bihar-ramuneko erosketak gainean neramatzala entzun nuen oihua. Biratu nintzen: “Aizu, andrea!”. Bai, niri ari zitzaidan. Hogeitaz inguruko kankailu bat: “Bai?” erantzun nion eta hurbildu egin zitzaidan handikotea: “Fluping-txetxerrep elizondo...”. Hasi nintzen, bada, hurbil genuen elizaren ondoa seinatzen, baina berak kasurik ez, han zirauen bere hitzaldia botatzen arnasarik gabe gelditu zen arte. Orduan kokotsa dar-dar zuela konturatu nintzen. Lurrean utzi nuen nire zama: “Ea, mutil, lasai, zein da arazoa?”. Ondoren jasan nuen hitz-uholde hartatik *kontroldekalidad* eta *karpinteriametalika* bakarrik ulertu nuen. *Kutsidazu* herriko biztanle sentitu nintzen neure herrian, Rosa Martín baino, Juan Martín berria.

Baina bera zen begiak gori-gori zituena. Luzaroan egon ginen berbetan. Berbetan edo, batuaz ni eta bizkaiera nafartu urduri-



DANI BLANCO

tsuan bera. Horrela jakin nuen Elorriokoa zela, baina sei urte lehenago, ama hil zitzaionean, Elizondora joan zela aita eta amonarekin bizitzera. Trapagaraneko enpresa batetan ziharduela lanbide heziketako praktikak egiten. Eguerdian lantokitik ateratakoan, gerriko poltsa ez zeukala konturatu eta komisaldegira abiatu zen salaketa jartzera.

Orduak zeramatzan Barakaldoko kaletarrei arazoa azaldu guran. Etxeraino iristeko metroko biletea eta autobus bi hartu behar zituela, guztira hogeita hiru euro. Egunero etortzen zela eta hurrengo egunean itzuliko zidala. Konponbide erraza zuela iruditu zitzaidan: berrogei euro luzatu nizkion eta paper ziztrin batean mugikorreko zenbakiak trukatu genituen. Pozaren pozaz hartu zuen dirua eta kokotsa behingoz geldituta, nire jatortasuna gorai patu nahi izan zuen: “Laostia da, hau maketoz beteta dau, eske kasuripez, kasuripez ez dostie eñ. Errespetu pixkat, pixkat xikiera!”

Etxera abiatu nintzen eta bide ertzean topatu nituen errumaniarrei ez nien sosik ere eman. Ez dakit zergatik. Igaro dira asteak eta ez dut gazte haren deirik jaso. Zerbait gertatuko zitzaion, seguru, laster deituko dit. Ez dut uste bere berba jan duenik. Euskaraz aritu ginen. ■

◀ Igaro dira asteak eta ez dut gazte

haren deirik jaso. Zerbait gertatuko

zitzaion, seguru, laster deituko dit.

◀ Ez dut uste bere berba jan duenik.

Euskaraz aritu ginen



TXANDAN

Andoni Mujika



Identitatea elementu askok osatzen dute eta nahiko pertsonala da. Baina guztien artean bakarria lehenesten da apur bat beti. Lehenengo abertzalea edo ezkerrekoa? Zein da izena eta zein deitura?

Historian zehar, sustraiko aldaketak formulatu dituzten pentsaerak ekarri dituzte aurrerabide esanguratsuenak. Komunean izan dutena: aldaketa sakona mahai-gaineratzea, indarrean zegoenari *bordagoa* jotzea, eta badirudi, musaren une hori oso gustuko dugula. Erljioak, herri-identitateak eta iraultzak izan dira proposamen horien konprezioak. Izugarritzko karga identitariodunak hiruak. Hiruak izan dute jen-

Izena eta deiturak

haren darte zabala abiarazteko adinako bulkada, onerako zein txarrerako. Eta aurrerago, horien bertsio berri eta epelagoek gutxi ekarri izan dute. Nortasun sendoek beste dohain bat ere badaukate; aldi berean dira etorkizunerako ipar eta presentarako jokamolde.

Baina batez ere une klabeetan da inportantea identitatearen zerrendaren ordena. Ariketa proposatuko dizut, zeure buruari eta inguruari pasatzeko. Ordena itzazu hitzok batetik hamarrera —ea etorkizuna asmatzen laguntzen dizuten—: ni, aberria, immigrazioa, emakumea, ezkerria, ongizatea, ekologia, planeta, kristautasuna, Athletica. ■